

ERBESTEKO ELERTIAK

SALOA

(GERKERATIK EUSKERATUA)

Yatuna yatunetarikoa ei zan—diñoenez—Piloken olerkiña.

Au dala ta, bein Sirakusa'n iru oin luzerako olagafoa erosi eiban, eta gertauta ia guztia yan ei eban buruez bestea, ta betekadeagaz ok-eginda ta txegosi eziñik txarto-be-txarto gelditu ei zan.

Ariñeketan ekafi eben osagiñea, ta olerkigiña ain txarto zegoala ikusi ebanean, esan eutson:


—Zeozer arautu, yauñi ta erabagibarik ba'daukek, Piloken, len-baño-len arautu, yauñi ta erabagi egik, zazpi ordu bañu ilda agoke-ta.

Eta arek erantzun eutson:

—Nire gauza guztien yabe eriotzea da, osagiñe, ta nire gauzak aspaldion araututa, yauñita ta erabagita dagoz; neure olerkiak gizondata eta burestundauta, yaungoikoen zainpean isten dodaz, eta gurasordekotzat neugaz batera azi diran Oldertzak (Musak) Aphrodites eta Dyonyosos isten dodaz. Amezan nire azken-naiak. Baña Timotheos eta Niobe'ren seme Karon'ek astirik emoten eztaustan ezkeru, ta bere ontzian (1) sartzeko zarata dagistanezkero, ta men-egin bear yakon zori-ilunak dei-dagi-ta, neure gauza guztiek neugaz batera bera daroadazantzat, emon egistazue olagafo-ondakiña.

LAÑAKOETXEA'TAR B.

(1) Gerkar olerkigiñiak diñoenez Karon'ek iñak bere ontzian ibaiaren alde batetik bestera igaroten ebazan. Onek, baña, yaungo-izunen yafalleen ames zorok baño eztira, ta guk kistafok eztauku olako gauza bañegafirik geure siñismenean.



EUSKAL ESNALEA



1928

EPAILA

291'g zenbakia